

Hizkuntza bat baino gehiago mintzatzea: familia bakoitzak bere historia!



Hizkuntzak nahastea ikastea da!

Normala da hizkuntza bat baino gehiagorekin handitzen den haurrak hizkuntzak nahastea. **Errepertorio eleanitz bat du eta bertatik hartzen ditu hitzak bere beharren arabera. Pixkanaka solaskidearen arabera egokitzen ikasten du, hizkuntzak aldizkatuz.**



Nor bere hizkuntza mintzatzea pixka bat, anitz... Edo ez beti.

Familian ingurumenean diren hizkuntzez gain beste hizkuntza bat edo gehiago mintzatzeak denbora eta arreta eskatzen ditu. **Jarraikitasunez arituz, fruituak ukanen dituzue urte batzuen buruan: ez etsi!**



Familia bakoitza ezberdina da.

Hizkuntzen transmisioa ez da berdina familia bakoitzean, ezta pertsona bakoitzarentzat ere. **Ingurumenak, ohiturek eta solasek hizkuntzekin dugun harremanean eragiten dute.**

Hizkuntza bat transmititzea, hizkuntza bat bizitzea da.

Etxean ez da gramatika klaseen beharrik! **Egunerokoan mintzatzea, irakurtzea, jostatzea eta kantatzea transmisio bideak dira.** Hala ere, familiako hizkuntza(k) irakurtzen eta idazten jakiteak epe luzeako transmisioa lagunduko du.

Eskolako hizkuntzak gaina hartzen du anitzetan... Normala da!

Askotan haurrak ingurumenean duen hizkuntzan erantzuten du, nahiz eta etxean duen/dituen hizkuntza(k) ulertu. **Onena familiaren hizkuntzan edo hizkuntzetan mintzatzen segitzea da, ahal bezainbat entzuten segi dezan eta mantentzen lagun dezan.**



Hizkuntza bat transmititzea erronkaz... eta pozez beteriko abentura bat da! Zuen laguntzeko, hainbat baliabide atzemanen dituzue Dulala.fr-n!

